

BEREHALAKO HARRERA INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAT

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak > Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako larrialdiko arreta

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Berehalako arreta behar duten **indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak.**

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Indarkeriaren biktimak den emakumea.

18+ urte (edo adingabe emantzipatua).

Ordezko etxebizitzarik ez izatea.

Zertan datza?

Berehalako eta premiazko harrera-zerbitzua, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeentzat (eta haien mende dauden pertsonentzat)([2.4.6 fitxa](#)).Egonaldi laburreko ostatu-baliabide bat da, egoera baloratzen da eta baliabide egokienera bideratzen da.Zerbitzu hauek ditu: informazioa, orientazioa, balorazioa, diagnostikoa, esku-hartze hezitzailea eta psikosoziala, laguntza, arreta soziojuridikoa eta, hala badagokio, zaintza. Otordu-zerbitzua, garbitegia eta eremu komunaren garbiketa barne har ditzakete.Bere helburuak honako hauek dira: tratu txarren egoerei berehalako arreta ematea, etxetik alde egin behar izan duten

emakumeei ingurune seguru bat eskaintzea, aholkularitza eta laguntza intentsiboa ematea, bai eta autoestimua eta bizitza autonomoa mantentzeko trebetasunak berreskuratzeko laguntza ematea ere. Baliabide horien kokapena konfidentziala izan ohi da, bertan bizi diren emakumeen segurtasuna bermatzeko.

Norentzat?

Indarkeria matxistaren biktima diren eta larrialdiko arreta behar duten emakumeak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Indarkeria matxistarengatik arriskuan dagoen emakumea.

Larrialdiko esku-hartze bat behar izatea.

18 urte edo gehiago izatea (edo adingabe emantzipatua izatea).

Etxebizitza alternatiborik ez izatea, segurtasun-baldintzetan bizi ahal izateko.

Non eska dezaket zerbitzua?

SATEVI - Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatua

Telefonoa: 900 840 111

- 24 orduz, asteko 7 egunetan.
- Ez du arrastorik uzten fakturan.
- Eskuragarria 51 hizkuntzatan.
- Entzumen- edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-hizkuntzako interpretea.

[Webgunera sartu](#)

Ertzaintza (112)

Informazio gehiago

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

Informazio gehiago:

- [Berehalako harrera indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Araban](#)
- [Berehalako harrera indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Bizkaian](#)

- [Berehalako harrera indarkeriaren biktima diren emakumeentzat Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)